

Tomasa Bereziartua

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1923-2009)*

Aurkibidea

Biografia



Lizarraga auzoko Ugartetorre baserrian bizi izan zen. Ezkondu ondoren, Laskuraintxiki baserrira joan zen bizi izatera. Antzinako kontuak oso ongi gogoratzen ditu eta azalpen interesgarriak ematen ditu. [Juan Cruz Agirrezabal](#) senarrarekin batera elkarriketatu zen.

Zintak

ANT-045

• **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola

- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2004-09-29
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ANT-046

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2004-09-29
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-051

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2004-10-14
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-052

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2004-10-14
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-121

- **Proiektua:** Antzuolako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pavo Nuñez, Kristina
- **Data:** 2004-01-01
- **Iraupena:** 33 min
- **Euskarria:** Mini Disc

Pasarteak

1. Trumoi beldurgarria

- **Erref:** ANT-045/006
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Eguraldiaren inguruko pasadizoa. Trumoi beldurgarria eta etena.

Transkripzioa

-Beste baten ardittara junda nenbillen, hor mendixan bastante goixan Irimo-gaiñen ardittara junda, eta trumoia, baiña izan leikenik billurgarrixena jo zeban, trumoia. Eta neure laguna alabiakin etorri zan. "Ene!, guk erten dou mendira-eta, guk ein bihou jiria, egun guztirako erten dou-eta." Nik ikusten neban etena zela zetorren danetik. "Egon trankil, atsaldia mundiala ein bihar dau eta." Eta gero harrezkero be zenbat aldiz esan: "Zuk igarri zontsan ba!" Fernanda, Santiagoneko Fernanda. "Baiña zela leike baiña, zuk zela igarri jatzun?" Igarri? Ikusi ein neban frentia, dana, buelta dana garbitzen zetorrela eta atzia garbi geratzen zana. Tomasa: Harrezkerio zenbat bider esan zotsun artistia... -Harrezkero artistia behintzat, denporale... baten artistia nintzala; baiña mendittik ikusi eitten nik. -Artistia izateko be denpora asko egon biharko da begiratzen... -Bai, bai, bai, ikusi ein bihar. Atenziñua nundik datorren, haiziak nundik jotzen daben-eta. Atzetik ze datorren-eta.

2. Antzuolako industria gerra aurreko urteetan

- **Erref:** ANT-045/007
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

<p>Antzuolako industria: lau larru-ontze fabrika; bi zerratoki. Larru-ontze lantegietan, gizon eta emakumeak aritzen ziren lanean. Olanan, Telleria, Arbulu eta Bareñ. Gerra garaian gorakada handia izan zuten; baina gerraostean, lanaren beherakada etorri zen, eta batzuek behea jo zuten.</p>

Transkripzioa

-Antzuola zure gazte denporan zelakua zan, kaliak eta. Ze giro zeuan?
-Girua bai ona, E!
-Fabrikak?
-Lau kurtiderixa zeren. Gero bi zerra, beste bi denda. Eta, zela esangotsut ba, ostian kurtiderixak; haretxek; haretxen lanakin jentia jiratzen zan.
Tomasa: Gizon danak eta andrak e bai lanian kurtiderixetan. Olanarian zenbat andra zebitzen? Neska eta andra, bueno!
-Andrazkuak be bai orduan?
-Andrazkuak be juten zien.
Tomasa: Eta Tellerianian danak emakumiak ia. Gerra denporia zan-eta. Kartutxerak eta horrek eitten zituen, danak gerraterako.
-Kurtiderixa harek, haren jabiak danak aberastu zien. Eta gero danak pobretu zien. Eta gaur ezta existidu be eitten Antzuelan kurtiderixaik.
-Ze kurtiderixa zien. Izenak akordatzen jatzuz?
-Izenak ba Olanan, Telleria, Arbulu eta Bareño. Lau horrek zien. Danak aberastu zian. Gero etorri zan gerria eta gerriakin berriz zoro dirua batu zeбен. Orduan dana kartutxeria eta abarra-ta, kaballerixiandako zerak eitteko-ta.
Tomasa: Dana gerrarakua zan.

-Dana gerrarakua zan eta orduan aberastu zien danak. Gero danak pobre edo, bag!, fanfarreixa barik danak geratu zien. Batzuk kiebrea jo, gaiñera, e.

3. Antzuolatarren izaera, ohiturak eta jaiak

- **Erref:** ANT-045/011
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Natura » Meteorologia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

<p>Antzuolatarren izaera. Ohiturak, jaiak. Mairuen kontra izandako borrokaren antzezpena. Valdejunquera.</p>

Transkripzioa

-Jende langillia bai Antzuelan. Juergistia be bai, e! Juergistia be bai. Baiña bata bestiakin, bata bestiakin hobeto ezin leike ibili. Eta ointxe be bai, e! Nik neuk behintzat Antzuela daukat..., zeruan daukat nik Antzuela, egixa esan biha da. Zihero antzuelarra izen be, e!, eta daukat kariño haundixa herrirako neuk. Haundixa!

-Jaixan be frontoian erromeixia...

-Jun bai, oin be jun zaitte bai kalera... Gu jaixan mezetara jutun ga eta edozein gaztek-eta tratauko zaittu bere laguna baziña bezelaxe. Bai, bai. Hortan...

-Gertu-gertuko...

-Bai, gertu-gertukuak danak. Oso... Antzuela... Diruakin be ez da pagatzen Antzuela. Ez hemengua naizelako, baiña jendia dago halakoxia. Bai, Antzuela... Hor ikusten dozu aiuntamentuan, sekula txistik be ez dabe etaratzen. Zenbat klase eta ixil-ixilik danak hortxe.

- (Tomas) Zenbat dantzarixak-eta fiestetarako gauzak-eta eitten dittuen. Kuadrilla batekuak beste kuadrilla batekuekin danak reunitzen dia fiestetarako, gorabeherak eitteko. Neskak'e bai dantzan, mutillak'e bai.

-Piedadeetan-eta Antzuelako dantzarixak sorgin-dantzia...

-(Tomas) Hori be edarra eitten dabe, moruen gerria.

-Moruen gerria, hoixe da ba inportantia Antzuelan. Eta prosperatzen doia, e! Lehen egon da hor hildda puxkat, baiña oin prosperatzen doia.

-(Tomas) Horregatik esaten dot, mutil gaztiak darella jatorrak.

-Mutil-gaztiak, hoixe.

-Mobidu eiten dila?

-(Tomas) Fiestak? Baiña bete holaxe herrixa, e.

-Bai, prosperatzen doia.

-(Tomas) [...] Ez dakizu zela jun zian Antzuelakuak be Valdejunquerara?

-Valdejunquerara. Neu be izen nintzan Valdejunqueran. Bataillia, Antzuelako soldauak bataillia eukittako lekuan izen nintzan... Oin ezin neike herrixan izena esan. Valdejunquerako bataillia egondako lekuan izen giñan. Eta aurtan Piedadeetan hangiak etorri die honutz.

-Ene!

-Bai. Neu be ez naiz egon, baiña etorri die honutz. Eta zelako ondo hartu giñuzten han! Zelako esplikaziñuak-eta, bataillia nun egon zan ta kurutzia ta gero beste zera bat eruan giñuan, beste sorta bat. Ta ermita txiki baten ipinita han egongo da haura! Haura han geratu zan.

-(Tomas) Bi urte da hori ein zala eta.
 -Baiña sekulako amistadia harekin herri harekin. Ta bizi zien hiru-lau katu bakarrik herri haretan. Zelan dan hori, oin etxat akordatzen-eta. Sekretarixoa eitten zebana ta beste hiru-lau bat. Gero sekretarixoa eitten zeban harek beste baillara batzutako kargua eukiko zeban uste dot, hortara eitten zeban harek. Inguruko baillaran eukiko zeban partia igual. Bestela harekin bakarrik ezin zeikien bizi. Herri haretan hiru katu zeren eta. Danak erten oskuen bidera. Eta zelako ongietorrixa ein! Eta oin erei iguala ein jate hemen Piedadeetan. Neu ez nintzan izen.
 -(Tomas) Bai, etorten dia, urtero etorten dia.
 -Bai, bai. Amistade haundixa. Bai. Hemengo jendiak be nahi zeban Valdejunquerako kontua jakittia, eta nun izen zan-eta. Baiña hantxe izen nintzan neu be. Ondio zenbat denpora da ba? Urtia edo holaxe da.

4. Maristak Antzuolan

- **Erref:** ANT-045/012
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:23:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Maristen komentua. Maristen inguruko kontuak. Aitari baserriko lanetan laguntzen zion eta eskolara joan gabe geratzen zen sarri.</p>

Transkripzioa

-Antzuelako kontuak..., akabau bariak dia Antzuelako kontuak.
 -Umetan, gazte-denporan zelakua zan herrixa? Kaliak-eta?
 -Kaliak? Oin eztao konparaziñoik be. Oin ein dau buelta bat!
 -Etxe asko ein dia eta.
 -Etxe asko berrixak. Orduan Maristak. Konbentua zeuan haundixa han. Eta Maristak egongo zien ehun eta berrogeta hamar igual, marista. Eta herrirako, herriko jenerua hartzeko ikaragarri onak; nahiz sagarra, nahiz frutia, edozer jenero hartzeko. Patatia..., eta harek alde eittiakin basarrirako ez zan... Esnia... Badakizu harek zenbat jenero hartzen zeбен! Harek alde-edo, bai, gastau, azkenian gastau ein zian, ez dakit nora jun zian be. Ze herritta jun zan hoi? Ez, ze herri zan hoi?
 Tomas: Bakoitza bere lekutara.
 [...]
 -Maristak noiz etorri zian Antzuolara, hori badakizue?
 -Maristak? Auskalo noiztik.
 Tomas: Beti ezautu dittugu guk.
 -Zuek beti ezautu dittuzue maristak...
 -Guk beti ezautu dittugu. Gero gerra denporan hondatu zian e?
 Tomas: Gure basarrira ekartzen zittuen txorixuak sekatzera. Ugartetorria haundixa zan, eta eitten giñuan keia, eta haretzek ontzen, maristak etortzen zien. Etortzen zianak, txorixuak hartu, eruaterakuan, zela esaten jakon hari, (Zaltei) ; kriaia zan haura.
 -Maristen kriaia, baiña argixa, tipo argixa. Izena be ipinita zeukan, "Hermano Lucas" ipiñi otsen izena be. Baiña zan puxkat eraten zebana-

eta...

-Eta orduan esan dozu, Ugartetorren ze eitten zenduen maristendako?

-Txorixo pila bat, konparaziño batera, hamen danian ipiñiko balia bezela sukaldian.

Tomasa: Guk ondu eitten giñutzen, keia emun.

-Keia emon, sekatu ta...

Tomasa: Harek etortzen zien, aurrerago esaten doun hori etortzen zan:

"Preparau die?", eta "Ba ikutu, hor zela daren, laste dia." Meriendatzera etortzen zien hiru lagun. Hermano Victor...

-Argixa zan haura be.

Tomasa: Praktikante eitten zeban. Eta gehixao be etortzen zien [...].

-Maristak nun zeken konbentua?

-Oin badago ba entradan etxe berrixak, kooperatiba moduan hoi; hantxe zan, maristak hantxe zian.

Tomasa: Kaletik be ezaun da. Kanpantorria dauka bistan oindio, kanpantorria dao oindio bistan maristena. Beittuizu elizan entradan zela daon kanpantorre txiki bat.

-Eta behetik gora ixo eta han San Jose han goixan, holako aldapa baten; eta han ibiltzen zian hango errezua eta abarra-ta.

-Bai, etortzen zien. Horrek Gorputz Kristittan prozesiñua eitten ei eben; hartu behetik...

-Orduan Maristekin relaziño haundixa zeunken.

-Guk relaziño haundixa geunkan. Direktoria..., eskolan be hantxe ibili nintzan ni. Ez neban asko ikisi, gutxi juten nintzan-ta, ez neban asko ikisi.

-Maristetan ikasittakua zara?

-Bai, maristetan ibilittakua. Gu ondo. Maistrua nik neukan oso ona; baiña esaten ostan holaxe: "Juan Cruz, cómo no viene a la escuela?" esaten ostan. "Trabajando" Badakizu, ahal dan moduan. "Trabajando" "Tú no trabajarás mucho" Nunbait mutiko edarra, mutiko mardu-mardua egongo nintzan ni orduan. "Tú no trabajarás mucho". Trazarik ez zotan hartzen langillia izetekoik marista horrek "Tienes que venir a la escuela!"

Tomasa: Aittakin juten zan egurra kargatzera, ezta? [...].

-Eguardixan aittak bialtzen nindduan: "Atsaldetik jun eskolara, e!" Baiña ez nintzan etorten. Denboria pasauta eta.

Tomasa: Ordu bixak jo arte etorri be ez.

-Gero aitta etorri zanian amai: "Ze, Juan Kruz ez da eskolara jun?" eta "Bai, ordu edarrian etorri da!" Txarritan hor bidian eginda. "Ordu edarrian etorri da eskolara juteko!"

5. Baserri-jabeak; errenta

- **Erref:** ANT-045/016
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:27:25. **Bukatu:** 00:30:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Errentero, etxejabeak. Otazua, inguruko baserri askoren jabea; "abarkadunetan aberatsena". Errentaren inguruko kontuak.

6. Herriko eskola; maristak

- **Erref:** ANT-045/019

- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Herriko eskola. Mutilak eta neskak banatuta egoten ziren. Irakaslea zelakoa zen. Mutil asko maristetara joaten ziren. Gerra hasi zenean maristek ihes egin behar izan zuten.

7. Maristak Antzuolan

- **Erref:** ANT-045/021
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:39:05. **Bukatu:** 00:40:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

Maristen zigorak. Igandean, bezperetara joan ezean, astelehenean jolas-orduan hormaren kontra egon behar izaten zuten. Diziiplina handia. Inguruko herrietatik ere mutilak maristetara joaten ziren ikastera.

8. Inguruko auzoak; artzaintza

- **Erref:** ANT-045/024
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:45:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Ardi asko inguruan. Elosu, Aizpurutxo, Ondamendi, Irimoegi, Galartza, Txangala, Lizarraga auzoetako ardiak bertako mendian. Larre garbiak. Artzainaren lana.

9. Baserriaren egitura; lexiko interesgarria

- **Erref:** ANT-046/002
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:05:05

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Baserriaren egitura. Sukaldea nolakoa zen. Leiho txikiak; beheko sua... "Zalteixa", sukaldera begira. Logelak nolakoak ziren. "Alkobak". Goiko pisua

oso handia; San Martzialeko banketea bertan egiten zen. Ganbara; sagar-ganbara; arto-ganbara. "Arteixa", ardiendako tokia.

10. Sagardoa egiteko dolarea

- **Erref:** ANT-046/004
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:07:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Dolarearen inguruko azalpenak. Hasiera batean ondoko etxebizitzakoek erosi zuten, baina gerora Juan Cruzen aitona ere parte hartu zuen.</p>

11. Auzoko bizilagunen arteko harremana

- **Erref:** ANT-046/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzoan duten elkartasuna. Betidanik izan dute horrelako batasuna. Beste auzoetan ere giroa oso ona da.

12. Gaztetako ibilerak; neska-laguntzea

- **Erref:** ANT-046/007
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:11:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Gazte denboran neska-laguntzera joaten ziren beste auzo batzuetara eta sarritan harrika hartzen zituzten hango mutilek. Garai hartan ez zegoen auzoen arteko batasunik. Gazteen arteko borrokak.

13. Bideak auzolanean egindakoak

- **Erref:** ANT-046/009
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:15:40

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Natura » Meteorologia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bideak auzolanean egindakoak dira; eskuz, gainera. Harria bertako

harrobietatik ateratzen zuten. Nondik-nora egin zituzten bideak auzoan. Lau negutan egindako lana.

14. Ardiak baserriko ekonomian izan duen garrantzia

- **Erref:** ANT-046/010
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:18:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oheak nolakoak izaten ziren. Artilezko koltxoak. Artilea saldu egiten zuten garai batean; zenbat balio izaten zuen. Bere ustez bizimodua ardiarekin atera izan du: haragia; gazta; artilea... Askok maite izan dituzte ardiak. Udazkenean ere 3-4 ardi hil eta etxerako haragia izaten zuten pixka baterako.

15. Abereak baserrian; oilo klaseak

- **Erref:** ANT-046/011
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:21:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Umetan ere abere asko izaten zituzten baserrian. Behiak, idiak, txahalak, ardiak. Oiloak ere asko izan dituzte beti. Oilo klase ona izaten zuten, gainera. Oilo-ezteiak. Ezteiak izaten zirenean gonbidatuek beti zer bait eramaten zuten.</p>

16. Soroan zer ereiten zuten; lurra nola lantzen zuten

- **Erref:** ANT-046/012
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:25:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Soroan zer ereiten zuten: artoa eta garia batez ere; arbia ere landatzen zuten. Beti txandatuaz. Neguan, laiatu egiten zituzten lursail asko. Giroaren arabera, errazagoa edo zailagoa izaten zen lurra laiatzea. Nola laiatzen zen azaltzen du. Gerora goldea eta burdinareta etorri ziren eta lana asko erraztu zen.</p>

17. Baserriko lanak: soroa, abereak...

- **Erref:** ANT-046/013
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:25:15. **Bukatu:** 00:28:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Lurra jorratzen lan asko egin izan dute. Soroko lanak amaitu eta Irimoegi gainera ardien bila joan, jetzi, etab. Orduan gaztea zen eta oso sasoi ona zuen. "Lanak penarik emon ez!". Urteetara asto-gainean joaten hasi zen, baina bestela 8-9 km inguru egiten zituen oinez egunero. Lantegira joateko aukera izan zuen, baina bertarako gogorik ez.

18. Ume-umetatik arditarako zaletasun handia

- **Erref:** ANT-046/014
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:28:15. **Bukatu:** 00:33:00

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Emakumeen eta gizonezkoen arteko lan-banaketa baserrian. Umetako lanak. Ganadu-jatekoa. Juan Cruzek 9 urte zituela, ardiak erosi zituzten; orduko kontuak. Ardiekiko zaletasun izugarria izan du ume-umetatik. Ardi guztiek izaten zuten izena. "Segiduan ardittan sartu giñan...!". 9-10 urte zitueneko kontuak.

19. Oiloa lokatu; arrautzak ezarri

- **Erref:** ANT-046/015
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:34:05

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oilo ugari baserrian. Oiloa lokatuta ikusten zuenean, segituan ezarri egiten zien arrautzak txitak ateratzeko.

20. Feria egunak; Santa Luzia feria

- **Erref:** ANT-046/016
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:38:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Ortuko jeneroa etxerako izaten zen. Kanpoan saldu izan dutena, gazta, bildotsak eta ardi-esnea izan da batez ere. Bergarara eramaten zituzten saltzera. Horrelako egunetan, amak angulak erosten zituen. Angulak jateko

zaletasun handia; feria egunetan batez ere. Santa Luzia. Espainia osotik etortzen zen jendea Zumarragara "kaballerixia" erostera.</p>

21. Bergarara baserriko produktuak saltzera

- **Erref:** ANT-046/017
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:40:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Bergarara gazta, bildotsak, arrautzak... eramaten zituzten saltzera. Astoarekin joaten ziren hasieran; gerora autobusa jarri zuten.

22. Baserriko lanak: lixiba nola egiten zen; ganaduen azpiak

- **Erref:** ANT-046/018
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:40:10. **Bukatu:** 00:44:55

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Garai batean lixiba nola egiten zuten azaltzen du. Erabiltzen zituzten xaboiak. Baserri batzuetan uraskarik ez eta erre kara joan behar izaten ziren arropak garbitzera. Ganaduen azpiak nola egiten ziren. Zenbatero aldatzen zituzten...

23. Umetako arropak; San Martzial

- **Erref:** ANT-046/019
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:44:55. **Bukatu:** 00:47:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Umetan erabiltzen zituzten arropak. Txikitan, San Martzialera eraman zuen tunika gogoan du oraindik ere. Tunika zuria bordatu gorriekin. Zapatak hala moduzkoak. Txapela ere, beti buruan. Eskolara tunikarekin joaten zen.

24. Jostunak Antzuolan

- **Erref:** ANT-046/021
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:51:15

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Jostunak Antzuolan. Baserriz baserri ibiltzen ziren etxerako arropak, umeentzakoak edo bestelakoak josten. Gerra garaiko bizimodua.

25. Gerra osteko egoera; errazionamendua

- **Erref:** ANT-046/022
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:51:15. **Bukatu:** 00:52:35

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra ostean jateko gutxi. Errazionamendua. Baserrian ez zuten goserik pasatu, baina kaleko jendeak gaizki pasatu zuen. Kaletarrak kaletik baserrira joaten ziren hango senideei lanean laguntzera, "tripa-truke".

26. Morroiak eta neskameak baserrietan

- **Erref:** ANT-046/024
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:53:35. **Bukatu:** 00:57:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Morroiak eta neskameak baserrietan. Juan Cruz umea zela morroia eta neskamea izan zituzten. Gerora ez du sekula laguntzarik izan. Tratua egiten zen etorri aurretik; urteko soldata, arropak... Gabonetan bakailaoa ematen zitzairen etxera eramateko.

27. Morroiak eta neskameak, etxeko bat gehiago

- **Erref:** ANT-046/026
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:58:25. **Bukatu:** 00:58:55

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Neskame eta morroien inguruko kontuak. Etxekoak bezala tratatzen zituzten.

28. Bildotsen jaiotza

- **Erref:** ANT-051/008
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:14:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Bildotsen jaiotza. Normalean ardiak bakarrik izaten ditu bildotsak, baina batzuetan laguntza behar izaten du. Bikien kasuan, zailtasunak izatea errazagoa izaten da.</p>

29. Artilearen inguruko lanak

- **Erref:** ANT-051/017
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:25:15. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríari lotutako lanbideak

Laburpena:

Artilearen inguruko lanak: garbitu, kardatu, etab. "Txabillia". Artzain askok egiten zuten haria artilearekin. Haria eta galtzak egitea ere lan luzea. "Goruetia". Garai batean auzoko emakumeak goruetan.

30. Emakumeak goruetan

- **Erref:** ANT-051/018
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:33:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríari lotutako lanbideak

Laburpena:

"Linapotzua" (liho-putzua) ezagutu dute, baina "liñurik" (lihorik) ez. Emakumeak goruetan. Ehulea Antzuolan.

31. Ikatzaren garrantzia gerraostean

- **Erref:** ANT-051/021
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraosteko egoera ekonomikoa Espainian. Dena zegoen faltan eta egurra eta ikatza oso estimatuak ziren. Txondorra egin zuten gerraostean eta orduan gertatutakoa.</p>

32. Ikazkintzaren gorakada gerraostean

- **Erref:** ANT-051/022
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Gerraosteko egoera, oso latza. Gaztainondo guztiak ihartuta zeuden ordurako eta urte batzuetan egurretan jardun zuten. Txondorak nola egiten ziren. Urte haietan ikazkintzak gorakada handia izan zuen. Automobiletarako erregairik ez, eta ikatzaren eskaera asko gehitu zen.

33. Industriaren loraldia Antzuolan

- **Erref:** ANT-051/023
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:42:40. **Bukatu:** 00:45:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

1946 inguruan egoerak hobera egin zuen eta kanpotik jende asko etorri zen bertara lan egitera. Antzuolan martxan jarri ziren lantegiak gerraostean: Goizper; Elay; Matz-erreka; etab. Gerra aurreko industria. Herriaren nortasuna.

34. Zintzarriak

- **Erref:** ANT-051/024
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:45:00. **Bukatu:** 00:47:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Meteorologia
- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ardiak zintzarriekin. Artalde bakoitzak zarata desberdina. Dunbak. "Intxarri-miña "intxarri-hotsa". Udaberrian, ardiak "mendirako haixia" izaten du; mendira joateko gogo.

35. Ardi-txakurrak

- **Erref:** ANT-051/025
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:49:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ardi-txakurren inguruko kontuak.

36. Ardi-lapurretak

- **Erref:** ANT-051/027
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:50:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ardien lapurretak.

37. Azeriak basoetan

- **Erref:** ANT-051/028
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:53:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Azeriak basoan. Baserrietara joaten ziren eta oiloak eta bestelakoak harrapatzen zituzten.

38. Basoko animaliak

- **Erref:** ANT-051/029
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:53:05. **Bukatu:** 00:54:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Basoko animaliak. Azeriak, basurdeak, etab.

39. Gaztagintza

- **Erref:** ANT-051/030
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:54:45. **Bukatu:** 00:56:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gaztagintza. Amak egiten zuen gazta, eta beragandik ikasi zuen. Gatzatua.

40. Gaztagintza

- **Erref:** ANT-052/001
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gaztagintza. Jenero ona behar da: esne ona. Garbitasunaren garrantzia. Esnea nola garbitu; zenbat gradutara berotu.

41. Gaztagintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ANT-052/003
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:05:05. **Bukatu:** 00:06:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gaztagintza. Gaztak toki hotz batean utzi behar dira.

42. Gazta egiteko prozesua

- **Erref:** ANT-052/004
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:11:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gaztagintza. "Gatzaria" zer den; gazta egiteko prozesuaren inguruko azalpenak.

43. Gaztagintza; azalpen zehatzak

- **Erref:** ANT-052/005
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:13:25

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gaztari azala egin arte, asko zaindu behar izaten zen. Gaztak ez du haizerik behar; bestela harrotu egiten da.

44. Gazta ona egitea, gauza zaila

- **Erref:** ANT-052/006
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:14:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gaztagintza. Gazta ona egitea ez da batere erraza.

45. Gaztagintza; azalpen zehatzak

- **Erref:** ANT-052/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:16:30

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gaztagintza. Zenbat esne litro behar izaten diren eta beste zenbait azalpen. Esnea garbitzeko asunak erabiltzen dira. Gaztak ondo kontserbatzeko non gordetzen zituzten.

46. Gatzatua edo mamia

- **Erref:** ANT-052/009
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:55. **Bukatu:** 00:18:25

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gatzatua edo mamia nola egiten den.

47. Ardi-buzkantzak

- **Erref:** ANT-052/010
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:19:40

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Buzkantzak nola egiten diren.

48. Ardikia jateko ohitura baserrietan

- **Erref:** ANT-052/011
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:20:25

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Lehenago ardiki gehiago jaten zen orain baino.

49. Txerriak nola hazi

- **Erref:** ANT-052/012
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:20:25. **Bukatu:** 00:23:20

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Behiak, ardiak eta txerri bi hazten zituzten. Txerriei, behiei eta beste abereei gaztainak ematen zizkieten jateko. Txerriak nola zaintzen zituzten; zer ematen zitzaien jateko.

50. Oiloak baserrian

- **Erref:** ANT-052/013
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:23:55

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oilo ugari izaten zituzten garai batean. Oiloak lokatu; oiloen inguruko azalpenak.

51. Txerriaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ANT-052/014
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:23:55. **Bukatu:** 00:24:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txerria nori saltzen eta erosten zioten. Bergarako "txarriduna".

52. Oilo klaseak

- **Erref:** ANT-052/015
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:26:55

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oiloei zer ematen zitzaien jateko. "Zaperua". "Oillo-harrixa". Klase desberdinetako oiloak. Luma-gorriak.

53. Oiloen inguruko azalpenak

- **Erref:** ANT-052/016
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:26:55. **Bukatu:** 00:30:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oiloak lokatzen zirenean arrautzak ipintzen zizkieten txitak ateratzeko.

54. Oiloen inguruko azalpenak

- **Erref:** ANT-052/017

- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:31:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Lehenagoko oiloek arrautza gutxiago egiten zituzten.

55. Abadea konjurua egitera baserrira

- **Erref:** ANT-052/018
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:31:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Uzarraga auzoko abadea konjurua egitera joaten zenean, gazta ematen zitzaion.

56. Kapoiak

- **Erref:** ANT-052/019
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:32:40

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oilaskoak kapatutakoan, kapoi bihurtzen dira.

57. Abadea konjurua egitera baserrira

- **Erref:** ANT-052/020
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:34:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Abadea konjurua egitera joaten zen baserrietara.

58. Garia eta artoaren garrantzia baserrietan

- **Erref:** ANT-052/021
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:34:50. **Bukatu:** 00:36:25

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Abadeari garia eramaten zitzaion. Urterako garia eta artoa hartzen ez bazen baserri batean, egoera zaila izaten zuen urtean zehar.</p>

59. Baserritarren lanak

- **Erref:** ANT-052/022
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:36:25. **Bukatu:** 00:38:25

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Baserritarrek dirua irabazte aldera egiten zituzten lanak: karretero lana; puntak egiten gurdiari; etab.

60. San Isidro eguneko feria

- **Erref:** ANT-052/024
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:39:35. **Bukatu:** 00:39:50

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>San Isidro eguneko feria: idi-trukea; etab.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com